

**IRITZIA****Iñaki Anasagasti**

EAJren Espainiako Kongresuko bozeramaile ohia



Politikari handia

Zaildutako politikari bat Joan zaigu: Xabier Arzalluz Antia. Politikari handi bat. Arras-toa utzi du, utzi duenez.

Artean Venezuelan bizi nintze-la ezagutu nuen nik. Gabonetan etortzen nintzen Euskadira, eta Luis Mari Retolazaren etxean izandako-bilera batean Deustuko

Unibertsitateko irakasle bati buruz hitz egiten zidaten: Arzalluzi buruz. Modu horretara ezagutu nuen. Gero EAJren BBBn harekin batera egon nintzen, 1977tik aurrera. Arzalluzekin harremanik handiena, ordea, neñ Kongresuan alderdiaren eledun izandakoan eduki nuen. 1986an ekin nion lan horri, eta hura handik

urte erdi batera jarri zen berriro EBBko presidente karguan. 2004an utzi zion buruzagitzari, eta neuk ere urte berean laga nion Kongresuko lanari. Beraz, oso hartu-eman estua izan genuen ia hogeitau urte haietan. Astelehenero eta ostiralero, behintzat, elkarrekin egoten ginen. Esaten zidan politikan ideiak garbi izatea eta pertseberantzia izatea dela garrantzitsuena; defenditzeko beti neure ideiak, pasioz.

Hura EBBko buru zela eta ni Kongresuan eledun, Moncloan PSOEren eta PPren garaiak ezagutu genituen. Eta PPrekin Gernovan sinatutako akordioa gogoran izango du jendeak. Jaime Mayor Orejak deitu zidan telefonoz orduan, prentsaurrekoa Sabin Etxean eman behar zela esanez.

Aipatu nion hori Arzalluzi, eta azkar erantzun zidan PPkoek ez zutela zapalduko Sabin Etxea, eta nahiago zuela geu joatea haien egoitzara, Madrilera. Arzalluzek sedukzio gaitasun handia zeukan, eta hori gabe ezin da ulertu 1996an PPrekin egindako ituna.

Baina Madrilgo gorabeherak gorabehera, Euskadiren historia ezin da ulertu Arzalluz bezalako figura politiko bat gabe. Espainiako Konstituzioaren negoziazio prozesuan demokrazia eta Euskadiko interesak defenditu zituen, eta Gernikako Estatutuaren negoziazioaren pisua ere eram zuen. Politikari posibilista zen. Eta oso gizon kultua zen, baina ez bakarrik jesuita izan zelako; abokatu izan zen, Alemanian bizi izan zen, hizkuntza asko

zekizkien, oso egoera desberdina bizitakoa zen, meategi batean lan egina zegoen, irakaslea izan zen... Oso zaildua zen, ez gaurko politikari asko bezalakoa.

EBB utzi ondoren, politikagintzako lehen lerrotik erretiratu egin, nahiz eta jarraitu, jarraitzen zuen. Askok irakurtzen zuen. Baratz bat zeukan, eta han aritzen zen; gustukoa zuen. Bilbon pasiatzen ere ibiltzen zen; neuk halaxe ikusi zuen azkeneko aldiz.

Joan zaigu Xabier. Politikari handi bat. Eta, nire ustez, hemen izan den hizlaririk onenetakoa; primerakoa. Jose Antonio Agirre lehendakariaren ondoren, hura izan da hizketan onena. Eta, bere ibilbide luzearen ondorioz, beti zekien noiz geratu behar zuen eta noiz estutu.